



2014

2013-2014 IKASTURTEKO LAUDIO IKASTOLAKO GORPUTZ HEZKUNTZAKO AZTERKETA PEDAGOGIKOA



Ibon Alvarez Diaz de Tuesta

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren

Zientzietako Gradua

30/05/2014

AURKIBIDEA

- SARRERA 4 or.
- LAUDIO IKASTETXEKO TEXTUINGURUA 5-8 or.
- ESKOLA NEURRI TXIKIKO GIZARTEA 9-10 or.
- ZER DA NERABEZAROA? ETAPAK ETA EZAUGARRIAK 11-16 or.
- IRAKASLEAREN EZAUGARRIAK 17-19 or.
- LAUDIO IKASTOLAKO GORPUTZ HEZKUNTZA JARDUEREN KANPO LOGIKAREN AZTERKETA
 - o Eskola: espazio arrazionala 20-21 or.
 - o Egutegia: betebeharren koordinazioa 22-26 or.
 - o Soziabilitatea: elkarlana nagusi 27-30 or.
 - o Materiala: teknologiaren inbasioa 31-32 or.
- MOTRIZITATEAREN GARRANTZIA SOIN HEZKUNTZAN 33 or.
- LAUDIO IKASTOLAKO GORPUTZ HEZKUNTZA JARDUEREN BARNE LOGIKAREN AZTERKETA
 - o Gorputz hezkuntza espaziala: ziurgabetasun eza 34-36 or.
 - o Gorputz hezkuntza tenporala: lehiaketa eta lehiaketa eza 37-38 or.
 - o Gorputz hezkuntza soziabilitatea: elkarrekintza indibidualizazioaren gaineratik 39-40 or.
 - o Gorputz hezkuntza materiala: objektu ugari, teknologi urria ... 41-42 or.
- ONDORIOAK 43 or.
- KONKLUSIOAK 44 or.
- BIBLIOGRAFIA 45-47 or.

TAULA ETA FIGUREN ERREFERENTZIAK

<u>Taula 1</u> : Nerabezaro aldaketak sexuaren arabera	12 or.
<u>Taula 2</u> : Nerabezaro aldaketak adin etaparen arabera	14 or.
<u>Taula 3</u> : Euskal Autonomi Erkidegoaren dekretu kurrikularreko derrigorrezko bigarren hezkuntzako irakasgaiak eta ordu kopuruaren antolaketa	24 or.
<u>Taula 4</u> : DBH 4B mailako ikasleen aste bateko ordutegia	25 or.
<u>Taula 5</u> : Arlo kontzeptualen eta prozedurazkoen sailkapena	26 or.
<u>Figura 1</u> : Audio Ikastolako espazio banaketa goitik begiratuta	22 or.
<u>Figura 2</u> : Audio Ikastolako 2013-2014 ikasturteko eskola egutegia	23 or.
<u>Figura 3</u> : Arlo kontzeptualak eta prozedurazkoak portzentajetan adierazita	27 or.
<u>Figura 4</u> : Adimen motorrari ematen zaion garrantzia	34 or.
<u>Figura 5</u> : Espazioaren datuak portzentajearen	37 or.
<u>Figura 6</u> : Denboraren datuak portzentajearen	39 or.
<u>Figura 7</u> : Partaideen arteko harremanaren datuak portzentajearen	41 or.
<u>Figura 8</u> : Objektuekiko harremanaren datuak portzentajearen	43 or.

SARRERA

Lan honetan Audio Ikastolaren azterketa pedagogikoa egin dut eta Audio Ikastolaren funtzionamendua hobeto ulertzeko baliagarria izan zait. Azterketa honetarako hainbat gauzetan arreta jarri behar izan dut eta informazio asko jaso. Esan daiteke behaketa lana puntu garrantzitsu bat izan dela lan hau burutzeko. Behaketa lan honekin irakaslearen jokabidean arreta handia ipini dut eta horrek, egiten dituen gauza onak eta baita txarrak ere detektatzeko baliagarria izan zait.

Gorputz hezkuntzako irakaslea orokorrean eredu on bat izan da niretzat eta gauza asko ikasi ahal izan ditut berarengandik. Irakasle modura urte dezente darama eta horrek ere esperientzia bat duela esan nahi du eta hori bere eguneroko lanean sumatzen zen. Klaseak erraztasun handiarekin ematen zituen eta saioak taldearen arabera era batera edo bestera kudeatzen zituen. Irakaslearengandik 2 gauza nagusi ikasi izan ditut, alde batetik nola ebaluatu; ikasleen esfortzua eta progresioa baloratu behar dela nagusiki eta bestetik ikasleak zigortzeko modu eraginkor bat; jardueratik ateratzea eta minutu batez pentsa dezala zer egin duen gaizki.

Gorputz hezkuntzaren arloko ezaugarriak ezagutzeko interesgarria izan da eta honen bitartez ikastetxearen curriculum ezkutua ezagutzeko aukera eman dit. Nahiz eta irakaslea ez ohartu, proposatzen dituen jarduerak motorrek psikomotorrak izatea edota materiala erabiltzen duen edo ez, irakaslearen ideologiarekin bat dator eta hau era berean ikastetxearen ideologiarekin.

Gradu bukaerako lan honek aukera eman dit praktiketako lana sakontzeko eta irakasleak proposatutako jarduerari buruz hausnartzeko baita ere. Lan hau burutzea posible izan da 2 pertsoneri esker. Alde batetik, Audio Ikastolako gorputz heziketako irakaslearen papera azpimarratu nahi nuke, berak informazioa eskuragarri jarri didalako une oro. Eta bestetik, Joseba Etxebeste nire gradu bukaerako tutorea. Lana bideratu didan pertsona izan da eta beti laguntzeko prest egon dena.

LAUDIO IKASTETXEKO TESTUINGURUA

1971 urtean sortutako Kooperatiba da Laudio Ikastola. Gaur egun bere funtzionamendua arautzen duten estatutuak 1995eko ekainaren 15ean Asanblada Orokorrak onartutakoak dira, Kooperatiben Legediak ezarritakoari egokituta daude.

Laudio Ikastola ikastolen mugimenduaren partaidea izan da hasieratik, 1975etik Ikastolen Elkarteko partaide direlako eta kolektibo honen foro eta egituretan parte hartzen dutelako:



ERKIDE

Euskadiko Lan Elkarteen, Irakaskuntza eta Kreditu Kooperatiben Federazioa
Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado, Enseñanza y Crédito de Euskadi



HEZKUNTZA PROIEKTUAREN XEDE OROKORRAK

Laudio Ikastolak Haur Hezkuntzako 1. eta 2. zikloak, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikasketak irakasteko (0 urtetik 18 urtera arte) ikastetxe integratzailea, akonfesionala, euskalduna, kohesitzailea, metodologia parte hartzailea eta kudeaketa irekia eskaintzen dizkie etortzen diren ikasleei eta hauen gurasoei, haietako bakoitzak bere giza eta adimen garapen osoa lor ditzan.

1. Integratzailea maila ezberdinetan:

SOZIAL mailan egon daitezkeen ezberdintasunak konpentsatuz eta joera klasistak gaindituz, ekonomikoki aukerarik ez duenari laguntza eskainiz, berezitasunak kontutan hartuz.

JATORRIAREN araberako bereizketarik ez egiteaz gain, euskal heziketa berbera eskaintzea, ikasleak eta honen familia euskaldun zein erdaldun jatorri eta kultura izan arren.

IDEOLOGIA, pentsamolde, erlijio edota ohitura guztiei irekia.

AHALMEN FISIKO eta PSIKIKOAK garatzeko eskaintza duena, giza zein egokitzapen materialak eskainiz, trabak eta eragozpenak gaindituz, aniztasunari erantzunez.

2. Akonfesionala, irekia eta erlijio ezberdinekin begirunez jokatzeko duena. Ideologikoki pluralista izanik, Laudio Ikastolak eragile guztien (guraso, ikasle, irakasle, bestelako pertsonala) erlijio sinesmenak eta adierazpen politikoak errespetatzen ditu, ikasleari ahalik eta informazio objektiboagoa emanez.

3. Euskalduna, euskara ezagutzeaz eta ikasketak euskaraz jarraitu ahal izateaz gain, Ikastolak euskal kultura eta gizartea erreferentziazat hartzen du, Euskal Herriko ohitura, ezaugarri, arazo, behar eta abarretan oinarrituz.

4. Kohesitzailea, neska eta mutilen hezkuntza berdina eskainiz: gizon eta emakumeen aurkako mitoak aurreiritzi eta jarrera diskriminatzaileak gaindituz, ikastetxean egon daitezkeen jarrera ez hezitzaileak eraldatuz.

5. Metodologia parte-hartzailea bultzatuz, hau da, bizitasunez irakatsiz eta ikasiz; eragile guztien inplikazio zuzena indartuz, ikasleena bereziki; pentsaerak, sentierak eta adierazteko askatasuna bermatuz.

6. Kudeaketa irekia, funtzionamendu zabal, bizkor eta dinamikoa bermatzen duena eta autonomia partekatua, elkarrizketa, partaidetza, erantzukizuna eta erabakiak hartzerakoan eta betetzerakoan gardentasuna bultzatzen dituen.

- Irakasle taldeak eremu pedagogikoari lehentasuna emanez, etapen autonomia, berezitasunak eta ikasketa buruen koordinazioa bermatuz, etorkizunari begira proiektu komunak aurreikusiz.

- Ikastolako Batzordeek eragile guztiak koordinatuz, parte hartzera animatuz eta hautabide demokratikoak bermatuz.

- Administrazioa eta beste erakundeekin euskalduntzeko planak bultzatuz, hezkuntza eskariari erantzunez, baliabideak errentagarritasunez erabiliz ...

BERRIKUNTZA ETENGABE

ELEANITZ-ENGLISH PROIEKTUA



Ikastoletan aspaldi konturatu ginen: XXI. mendeko euskaldunek eleanitzak izan behar dute. Gazteak, Ikastolatik irtetean, euskaraz eta gaztelaniaz mintzatzeko gai izateaz gain, ingelesez ere aritzeko gai izan behar dira. Horregatik izan ginen lehenak eleanitzasun goiztiarra ezartzen (4 urterekin), guk geuk sortu eta nazioarteko zein estatu mailako sariak jaso dituen metodologia baten bidez. 1991n hasitako bidea DBH 3. eta 4. Gizarte Zientziak ingelesez ematen sendotu da.

EUSKARAZ BIZI

Euskaraz murgiltze ereduari esker, ikasleen euskarazko erreferentzia gehienak ikasgela barrukoak zirela konturatu ginen. Ikasgelatik irtetean, herrian, hedabideetan edota aisialdian erdara da nagusi. Horretaz ohartuta, Euskaraz Bizi proiektua sortu zen, Argitxok



irudikatzen duena. Ikasgelatik kanpo euskararen erabilera bultzatzea eta ikasleen motibazioa areagotzeko hainbat kanpaina eta ekintza (Euskararen eguna, Olentzero ospakizunak, Agate Deuna, Inauteriak...) antolatzea dugu helburu.

HIZKUNTZ PROIEKTUA

Euskaraz Bizi ostean, beste urrats bat behar genuen: Ikasgela barruan eta kanpoan garatutako ekimenen arteko koherentzia ziurtatzeko proiektu globalago bat. Horrela sortu zen Hizkuntza Proiektua, Euskaraz Biziren kanpainez gain, Ikastola osoko materialak, komunikazioak, metodologia eta hizkuntza antolaketa aztertzen dituena.



ESKOLA AGENDA 21



Ingurunearekiko begirunezko baloreak eta garapen jasangarria bultzatzea helburutzat duen egitasmo honekin orain dela 8 urte hasi ginen, ikastola osora natur baliabideen erabilpen arduratsuaren kontzientzia hedatzeko. Horregatik proiektu honetan planteatzen diren ekintza gehienak ikasle, guraso eta langileei zuzentzen zaizkie. Urte hauetan egindako lanaren arazko ebaluazioa pasa ondoren, 2011ko ekainean jaso genuen Eskola Jasangarriaren errekonozimendua.

IKT; INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIORAKO TEKNOLOGIAK


Laudio Ikastolak Informazio eta Komunikaziorako Teknologien hedapena bere eguneroko jardueran txertatzeko plana garatu du. Ikastolen Elkarteak bultzatutako IKT proiektu barruan ikastola pilotu moduan dihardugu. Alde batetik, proiektu honek bermatu nahi du



Laudio Ikastolako ikasleek Ikastetxeko Hezkuntza eta Curriculum Proiektuetan dauden IKTen arloko oinarrizko kompetentziak eskura ditzatela derrigorrezko irakaskuntzan zehar. Bestetik, eguneroko praktikan ikasleek IKT tresnak autonomiaz erabil ditzatela: ordenagailuak, curriculum softwarea, web bidez zuzendutako irakaskuntza, koaderno, liburu eta arbela digitalak ... Gainera Ikastolako profesionalek etengabeko berrikuntza lanean dihardute IKTen ahalmen didaktikoen atarramendua arakatzen eta egikaritzen.

IKASGELA BIRTUALA

E-learning plataformek (internet bidezko apendizaiak) eskaintzen dituzten aurrerabideak Ikastolaren jarduera pedagogikoan txertatzen hasiak gara Ikasgela Birtuala proiektuaren bidez. 2007/08 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako ikasleei internet bidez etxean hainbat arlotako edukiak lantzeko aukera eskaintzen hasi ginen



ESKOLA NEURRI TXIKIKO GIZARTEA

Gizabanakoa gizartean nola txertatzen den (gizabanakoaren sozializazioa) aztertzeak, alde batetik gizabanakoa murgilduko den gizarte horren behaketa eta azterketa egitea eta bestetik, ikasbide sozial eta integrazioa baliabideen eta barrutien analisia burutzea eskatzen digu; zeren eta ikasbide sozial edo heziera hori eskolan bakarrik ez baita jasotzen, hau da, etxeko artean ikasten da eta amaigabeko bideari jarraitzen dio: eskola, hiria, komunikabideak, etab.

Erving Goffmanek (1959) gizartea antzerki gisa ulertzen du. Gizaki oro besteen aurrean antzezten dugula ez da ideia berria. Beharbada ez da kointzidentzia hutsa pertsonaren esanahi originala maskara izatea. Hein batean, maskara da guk gure buruaz eratzten dugun errepresentazioa eta maskara horren bidez saiatzeko gara lortzen izatea gustatuko litzaigukeena. Esan daiteke, norbanakoa beste batekin elkartzen denean, bere jokabidea egokituko duela gizarteak ontzat ematen dituen baloreen arabera, ingurua kontuan hartuz. Laburbilduz, sozializazio prozesuaz hitz egiten ari gara.

Norbanakoa bere emanaldia aurkezten du. Ingurua finko mantentzeko joera du, beraz, inguru hori erabiltzen duen norbanakoa bere jokabidea moldatuko du inguru horretara eta inguru aldatzeko duen bakoitzean jokabidea ere aldatuko da. Beste era batera esanda, testuinguru sozialak markatzen du gizarteak zer espero duen gutaz testuinguru horretan eta gure portaerek testuinguru horretara egokituko dira. Gizarteak espero du parte hartzaile bakoitza bere bat-bateko sentimendu zintzoak alde batera uztea eta gizartean onartuta dauden jarrerak hartzea. Esan daiteke adierazpenaren kontrola eskatzen dela. Beraz parte hartzaileek adierazten duten irudia itxura hutsa da. Testuinguruaren egokitzapenaren adibideak edonon aurki ditzakegu. Adibidez zinera edo antzerki bat ikustera joaten garenean jendea isilik egoten da besteekiko errespetuagatik. Ez du inon jartzen ezin dela hitzik egin baina guk badakigu gizartean onartuta dagoena isilik egotea dela. Gizarteak hori da transmititzen digun balorea eta hori da onartzen dena.

Gizartean pertsona bakoitza bere rola dauka. Pertsona horren jarrerak antzematera eramaten dute zein den bere rola. Egiten ditugun keinu berbal naiz ez berbalek informazioa ari dira transmititzen etengabe. Informazio guzti horrekin perfil bat definitzeko gai gara eta

denbora gutxirekin lehenengo inpresioa jasotzeko gai gara. Irakasle batentzat aditzera ematen duen lehenengo inpresioa oso garrantzitsua da, ez baitago lehenengo inpresioa emateko bigarren aukerarik. Lehenengo inpresioa hori izango da beti. Irakasleek betetzen duten rola pertsonalitatearen parte bihurtzen da, hau da, irakasle bezala zorrotza dena bere izaera horrelakoa izatea espero dugu. Transferentzia bat egiten da rola eta pertsonalitatearen artean. Gizakiok gauzak erlazionatzeko joera dugu.

Eskola mikro gizarte baten moduan antolatzen da. Pertsonen arteko sozializazioa ematen da hezkuntza testuinguruaren barruan, hau da, ikastetxearen barruan. Ondoren azalduko den bezala, ikasleen arteko harremanak edota ikasle-irakasleen arteko harremanak aldatu egiten dira egoeraren arabera. Honen adibide garbia da tratua ikasle eta irakasleen artean oso desberdina dela klase barruan edo patioan. Klase barruan era zuzen batean zuzentzen dira ikasleak eta patioan, ordea, askoz askatasun handiagorekin. Eskolan arau batzuk errespetatzen dira gizartean bezala eta ikastetxeak berak balore batzuk ditu eta horiek transmititzen saiatzen da. Laudio Ikastola adibidez, ikastetxe euskaldun bezala kontsideratzen dena euskara sustatzen du bere baloreen artean, euskaren erabilpenaren sustapena bultzatzen baita.

ZER DA NERABEZAROA? ETAPAK ETA EZAUGARRIAK

“La pubertad te va cambiando el cuerpo, la adolescencia, el alma. Y tú sobrecogido te preguntas quién fuiste, quién eres, y en quién te vas a convertir” (Antonio Gala)

Hezkuntza antolatuta dagoen moduan, gorputz hezkuntzako irakasleek 11-17 urte bitarteko umeekin lan egin behar dute, hau da, nerabeekin. Hortaz, gorputz hezkuntzako irakaslea jakin behar du norekin ari den lanean eta zeintzuk diren populazio horren ezaugarriak. Ez da berdina saioak hirugarren adineko pertsonentzat bideratzea edo aldiz nerabezaroan dauden umeekin lan egitea. Gorputz hezkuntzako irakasle batek nerabeekin egin behar du lan eta horregatik interesgarria iruditu zait nerabeei buruzko hainbat ezaugarri orokor aipatzea lanarekin hasi aurretik.

Hasteko ba ahal dakigu zer den nerabezaroa? Garapen biologiko, psikologiko, sexual eta sozial barne hartzen dituen garaia bezala definitu daiteke. Haurtzaroaren ostean, pubertaroarekin hasten den prozesua. Hitz gutxitan esanda aldaketan garaia da. Aldaketa hauek gizon eta emakumezkoengan desberdinak dira eta hurrengo taulan aldaketa garrantzitsuenak agertzen dira sexuaren arabera sailkatuta:

CAMBIOS EN LA PUBERTAD	MUJERES	VARONES
Estirón puberal (20-25% de la talla adulta)	+ (10-11 años)	++ (12-13 años)
Aumento de peso (50% del peso absoluto)	+	++
Cambio en la composición corporal.	Disminución de un porcentaje de tejidos blandos del 80 al 75%. Aumento del tejido adiposo.	Aumento del 80 al 85% por el aumento de la masa muscular
Aumento órganos internos.		Mayor tensión sistólica. Aumento 33% del volumen sanguíneo
Aparición caracteres sexuales	Crecimiento de mamas. Vello pubiano. Crecimiento cintura pélvica. Desarrollo de genitales internos y externos. Menarquía	Cambio de voz. Vello pubiano Crecimiento testicular Crecimiento peneano.

Taula 1: Nerabezaro aldaketak sexuaren arabera. (Gutierrez, J.M. 2009)

Taulan ikusten den moduan, pubertaroan bai mutilak baita neskek ere aldaketa nabariak izaten dituzte altuera eta pisuan, hazi egiten direlako oso azkar, honek gorputz osaeran eragina izanik. Aldaketa hauek ez dira kanpoko gorputz ataletara mugatzen, barneko organoak handitu egiten dira eta ezaugarri sexualak azaleratzen dira. Neskei bularrak handitzen zaizkie eta mutilei, aldiz, zakila eta barrabilak. Garai honetan ilea ateratzen hasten zaie bai mutil eta neskei.

Nerabezaroaren etapak sailkatzerako orduan, OMS-ek nerabezaroa kronologikoki 10-19 urte bitartean mugatzen duen bitartean, 3 etapa bereizten ditu 24 urterarte barne hartzen duena:

- 1- Nerabezaro goiztiarra (Pre-adolescencia o temprana) 10-14 urte bitartean
- 2- Nerabezaro ertaina (Adolescencia media) 14-18 urte bitartean
- 3- Nerabezaro berantiarra (Adolescencia tardía) 19-24 urte bitartean

Gutierrezen arabera (2009) 3 etapa horiek berdin sailkatzen ditu baina adin tartea aldatu egiten du eta etapa bakoitzaren ezaugarriak azaltzen ditu hurrengo taulan:

- 1) Nerabezaro goiztiarra (Pre-adolescencia o temprana) 12-14 urte bitartean
- 2) Nerabezaro ertaina (Adolescencia media) 15-17 urte bitartean
- 3) Nerabezaro berantiarra (Adolescencia tardía) 18-21 urte bitartean

Tarea	Primera adolescencia (10-14 años)	Adolescencia media (15-17 años)	Adolescencia tardía (18-21 años)
Independencia	Menor interés en las actividades paternas. Conflictos con los padres	Punto máximo de conflictos con los padres	Reaceptación de los consejos y valores paternos Cambio del papel padre-hijo a adulto-adulto.
Aspecto corporal	Preocupación por el aspecto físico Muy sensibles a los defectos: M: quieren perder peso V: ser altos y musculosos	Aceptación general del cuerpo Preocupación para hacer el cuerpo más atractivo	Aceptación e identificación de la imagen corporal
Amigos	Intensas relaciones con amigos del mismo sexo. Poderosa influencia de los amigos	Máxima integración con los amigos. Pandillas. Conformidad con los valores de los amigos	Grupo de amigos menos importante. Formación de parejas

Taula 2: Nerabezaro aldaketak adin etaparen arabera. (Gutierrez, J.M. 2009)

Taulan ikusten den moduan, Nerabezaro goiztiarra eta nerabezaro ertaineko bitarteko garaia antzeko ezaugarriak partekatzen dituzte eta nerabezaro berantiarra, aldiz, helduagoak direnez beste motako ezaugarriak dituzte. Nerabezaro goiztiarra eta ertainean gurasoekin gatazkak izaten dituzte eta ez dute onartzen inolako aholkurik. Nerabezaro berantiarrean aholku edo kritikak jasotzeko gai dira. Gorputz irudiari dagokionez, nerabezaro goiztiarra eta ertainean gorputzari buruzko kezka dute eta gorputza ederragoa eta erakargarriagoa egiteko nahi hori dago. Nerabezaro berantiarrean gorputzaren identifikazio eta onarpen osoa ematen da. Lagunei dagokionez, nerabezaro goiztiarra eta ertainean lagun taldea da indar gehien duena eta talde horren baloreekin guztiz identifikatzen dira. Nerabezaro berantiarrean lagun taldea garrantzia galtzen du eta bikotea izatea garrantzitsuagoa bihurtzen da.

Beste informazio iturrietan begiratu ondoren, Berger, K. S. (2007) "Psicología del desarrollo: infancia y adolescencia" liburuan nerabeen ezaugarriak azaltzen ditu 3 arlotan banatuta: garapen biosoziala, garapen kognitiboa eta garapen psikosoziala. Liburu honetan ezaugarriak luze azaltzen dira baina nik hurrengo orrietan laburtuta azalduko dizuet puntu garrantzitsuenak aipatuz.

GARAPEN BIOSOZIALA

PUBERTATE HASIERA

- Nerabearoa deritzo haur gorputzetik heldura pasatzeko ematen diren aldaketen garaiari.
- Emozio ugarirekin batera dator nerabearoa. Horietako batzuk, animo egoeraren aldaketa azkarrak eta sexuan inguruko pentsamenduak, zuzenki erlazionaturik daude hormona aldaketekin.
- Nerabearoko aldaketa nabariak 8-14 urte bitartean ematen dira. Orokorrean emakumeak gizonezkoen aurretik, eta lehenago garatzen diren emakumeek arazo gehiago izaten dituzte (beti ere kultura, komunitate... arabera)

HELTZE SEXUALA

- Pubertate amaiera aldera ematen da, garapen sexual primarioak bere gain hartzen du menarkia nesketan eta eiakulazioa mutiletan.
- Mutilak neskak baino altuagoak egiten dira, ahotsa grabeagoa egiten zaie eta ilea gorputzean zehar hazten zaie.
- Neskei aldaka zabaltzen zaie, bularrak urte batzuez gehiago hazten jarraitzen zaizkie.

OSASUNERAKO ARRISKUAK

- Nerabeak osasuntsuak izan ohi dira; gaixotasunak, bai arinak (gripea) baita larriak ere (kantzerria edo kardiopatiak) arraroak dira. Bestalde, ume txikiek eta adin ertaineko nagusiek baino 5 aldiz arrisku gehiago hartzen dituzte, lesio batera edo heriotza akzidentalera bideratu ditzaketenak.
- Arriskuen artean dago sexua, beraien gorputz eta pentsamendua garatu aurretik. Batetik, haurdun geratzea 16 urte izan aurretik karga fisiko handia suposatzen du hazten dagoen neskarentzat eta transmisio sexualeko infekzioak edozein edadetan dira arriskutsua.
- Nerabe gehienek kontsumitzen dituzte drogak, batik bat alkohola eta tabakoa, sustantzia hauek gorputzaren eta entzefaloaren hazkundera kalte arren. Baita ere marihuana eta hatxisa erretzen hasten dira.
- Gorputz hazkundera eusteko, nerabe gehienek ahorakin kantitate handiak jaten dituzte, baina ez beti osasuntsuak. Obesitatea gero eta hedatuago dago, mineral eta bitaminen defizientziak bezala; Hezurren eta haginaren hazkundera kalte dute. Nerabe batzuk, bereziki neskak, horren arduraturik daude bere irudiarekin zein anorexia edo bulimia jasaten dute, beraien osasuna larri kalte dezaketen trastornoak.

GARAPEN KOGNITIBOA

NERABEEN EGOZENTRISMOA

- Lehenengo urtetan ezaugarrietako bat egozentrismoa, beregan pentsatzea.
- Ikasleak aspertu ohi dira eskolan, zaila da irakastea eta beraien artean min egiten dira. Psikopatologia forma ugari handitu egiten dira bigarren hezkuntzarako trantsizioan.
- Hein handi batean, irakaskuntzaren erorketaren errua da eskolak ez dituela nerabeen behar intelektualak asetzen. Irakasleak urrundu egiten dira. Ez dago lurralderik ikasle guztiak konprometitzea lortu duenik.

PENTSAMENDUAREN PROZESUAK NERABEZAROAN

- Piageten arabera, pentsamendu operatibo formala da lau periodotatik azkena kognizioaren garapenean. Piagetek ebaluatu eta erakutsi zuen pentsamendu operatibo formala ikasleek bigarren hezkuntzako matematiketako edo zientzietako klasetan aurkitu ditzaketen arazo bidez, hala nola, nola imajinatu pisu batzuk kokatzeko modua balantza batean oreka lortzeko.
- Nerabeak ez dute pentsamendu zehatz eta errealista izaten: gehiago nahi du posible dena imajinatu, gerta litekeena edota ezin gerta daitekeena, erreal den gauzetan kontzentratu ordez. Nerabeak hipotesiak garatzen ditu eta miatu egiten du, arrazonamendu deduktiboarekin.
- Pentsamendu intuitiboa indartu egiten da nerabezaroan. Pentsamendu logika edukitzeko gai diren arren, gutxik erabiltzen dute logika, zeren eta pentsamendu intuitibo eta emozionala azkarragoa eta pozgarriagoa da.

IRAKASKUNTZA ETA IKASKUNTZA BIGARREN HEZKUNTZAN

- Mundu osoan zehar asko aldatzen da bigarren hezkuntza. Estatu Batuetan adibidez, exijentzia handiko ebaluazioak zabaldu dira demanda handiagatik. Hori dela eta, eskola uzteen tasak gora egin du. Zenbait lurraldetan ebaluazio hauek bertan behera uzten ari dira.
- Nerabe ugari apatiko azaltzen dira irakaskuntzaren aurrean eta ez dago modurik hauek kirola edo eskolaz kanpoko jarduerak egitera bultzatzeko. Ez da ohikoena eskola indarkeria, baina prebentzioa beharrezkoa da umetan. Irakaskuntza egokiak pentsamendu intuitibo eta analitikoak lotzen ditu ikasleen partizipazioan alde egitean.

GARAPEN PSIKOSOZIALA

IDENTITATEA

- Nerabearoa da ni-a aurkitzen den garaia, non gazteak “ni” ezberdinak garatzen dituzte, rol eta pertsonalitate ezberdinak probatuz.
- Erikson-en arabera, nerabeek lau esparrutan aurkitzen dute ni-a: erlijioa, sexua, politika eta bokazioa. Batzuk lasterregi hautatzen dute identitatea, estereotipoak; beste batzuek identitate negatibo edo kontrako bat hartzen dute presio sozial edo gurasoenen aurka egitean.
- Nerabeek identitate sexuala edo generokoa aurkitzen dute ez soilik orientazio sexuala zehaztean, baizik eta portaera ezaugarri espezifikoak eta rol maskulino eta femeninoak aukeratzen dituztenean.
- Ia ezinezkoa da identitate bokazionala 20 urte bete baino lehenago lortzea, lan asko ez baitira ezagunak nerabeentzat.

SOSTENGU SOZIALA

- Gurasoek influentzia edukitzen dihardute nerabeen hazkuntzan, borroka txikiak sortzen diren arren: diziplina ezarekin eta nerabearen autoafirmazio gero eta handiagoarekin erlazionaturik. Kondizio idealetan, komunikazio eta maitasun baloreak altu jarraitzen dute familia barruan, gurasoen kontrola txikitzen eta nerabearen autonomia garatzen delarik.
- Lagunek laguntzen dute eskolan, familia, lagunarte eta hazkunde fisikoarekin sortzen diren arazoei aurre egiten. Lagunartearen presioa onuragarria edo kaltegarria izan daiteke, hautatutako lagunaren menpe dago.
- Funtsezko papera du lagunarteak atzerriko nerabetan.
- Laguntasunak eta bikote heterosexualak nerabearoan hasten dira, eta gero eta garrantzia handiagoa hartzen dute kontzeptu pertsonala garatzeko eta heltzean. Nerabe bat afektiboki edo sexualki lotzea faktore anitzen menpe dago, bai pertsonalak baita kulturalak ere.

TRISTURA ETA SUMINDURA

- Ia nerabe gehienek haurrak zireneko konfiantza pixkat galtzen dute. Subjektu batzuk tristura eta beheraldi kronikoa jasaten dute, haurtzaroko arazoak areagotuz.
- Nerabe ugariak pentsatzen dute bere buruaz gain egitean. Parasuizidioak ez dira arraroak, bereziki neska nerabetan. Gutxi dira benetan hiltzen direnak, gehienak mutilak izan ohi dira. Arrisku faktoreak dira drogak, alkohola, armak, depresio luzea eta lagunarte eta gurasoengandik aldentzea.
- Ia nerabe guztiak bihurtzen dira independenteago eta suminduago aurkitzen dira. Hau normala da edade hauetan psikoanaliziaren teoriaren arabera.

IRAKASLEAREN EZAUGARRIAK

Irakaslearen paperari dagokionez, aurreko atalean ikusi dugun moduan kontziente izan behar da nerabezaroa ikaslearentzat oso adin kritiko eta zaila dela eta irakasle bezala egin dezakeen gauzarik onenetarikoa beraien autoestima indartzea dela. Hau garrantzitsua da autoestima on bat izatea lagunduko dielako arlo pertsonalean, ikasketetan eta sozial arloan. Autoestima on bat izatea esaten dugunean, esan nahi da bere buruarekiko iritzi on bat izatea, akatsak onartzen dituen kritikoegia izan gabe.

Irakaslearen funtzioari buruz hainbat autoreen iritzia aipatuko dut hurrengo paragrafoetan eta ikus dezakegu nola autore batzuek bat datozen zenbait ideietan.

Ibarraren arabera (2006) irakaslearen rola aldaketa ugari izan ditu eta bere funtzioa egungo gizartearen eskakizunaren arabera zehaztuta dago. Irakaslea ezagutza ematen zuen protagonista izatetik, bitartekari bat bihurtu da, ikaskuntza errazten duena ikasleei baliabide desberdinak eskainiz eta ikaslea da bere ezagutza eratzen joango dena.

Salmeronen arabera (2011) teknologia berriak, komunikaziozkoak esaterako, aurkitzen diren gizartean heziketa fisikoko irakaslea profesional malgua izatea baldintzatzen du, hau, da, espiritu berritzailea, konpromisozkoa, arduratsua, aldaketekiko tolerantzia eta baita erabakien aukeraketan, mediora moldatuz eta ikasleentzako giro egokia sortuz.

Testuingurua ezagutzea oso garrantzitsua da, gero ikasleekin komunikatzeko baliagarria izango delako, ikasleen elkarbizitza, parte hartzea, kolaborazioa eta hausnarketa sustatuz, uneoro sozializazio prozesuaren barnean egonez eta ikasleen arteko desberdintasunak saihestuz.

Irakaslea sozializatzaile modura ere paper garrantzitsua jokatzen du, elkarbizitzako egoerak proposatuz eta harreman desberdinak egoera eta testuinguru desberdinetan, ikasleen arteko talde lana, parte hartzea eta kooperazioa bultzatzen baitu. (Ministerio de Educación, 2011).

Contrerasen arabera (2000) heziketa fisikoko irakaslea irakasle integrala izateko ezaugarri desberdinak izan behar ditu, hala nola, trebetasun pedagogikoak, psikologikoak, profesionalak, fisikoak eta moralak.

Aguirre de Vergara dio (2011) gorputz hezkuntzako irakasleek formakuntza akademiko egoki bat izan behar dutela, honek emango dielako ikasleak bideratzeko gaitasuna eta ezagutza gaurkotuak eta argiak irakasteko.

Kontuan hartu behar da gaur egungo heziketa fisikoaren helburu nagusia ikaslearen heziketa integrala da, era horretan aspektu desberdinak hobetuz; auto-konfiantza, mugimenduen kontrola eta pentsamenduen kontrola (Gutiérrez, Pilsa y Torres, 2007). Beraz irakasle on bat ez da soilik ikasleen gaitasun fisikoak hobetzen dituen, baita ere ikasleen bestelako gaitasun eta jarrera positiboak indartzen dituena.

Irakaskuntza on bat lortzen da irakaslea eginbeharrean tartean sartzen denean, bere gaitasun eta balore guztiekin. Bestela, ez lukete lortuko ikasleekin enpatia harreman bat, hori izanik irakaslearen ezinbesteko betekizuna (MINEDUC, 2008, p.8).

Heziketa fisikoa hezkuntzaren parte da eta ondorioz gizartearentzat helburu argiak aurkeztu behar ditu. Ez dago aukera neutrorik, hau da, erabaki guztiek jarrera ideologiko bat adierazten dute nahiz eta batzuetan irakaslea jakinaren gainean ez egon. Beraz beharrezkoa da jarrera kritiko bat gorputz hezkuntzako irakaslearen aldetik, proposatzen dituen jarduerak hezkuntza proiektuarekin bat datozen jakiteko. (Franco, F. 2012)

Heziketa fisikoa betekizun motor desberdinak, jolas eta kirolak, proposatuz etorkizuneko generazioen sozializazioa bultzatu egiten du. Beraz irakaslea kontziente izan behar da ikasleen afektibitatearen eraikuntzan duen erantzukizunaz. Lehiaketa eta honen falta etorkizuneko hiritarren afektibitatearen orientazioan eragin handia izango duten elementuak izango dira. Eztabaida guztiz ideologikoa da, errendimendua eta lehiaketa sozialaren garrantzia, irabaztearen gozamina bultzatuta eta beste aldean besteekin gozamina partekatzearen artean. (Etxebeste, J. et al, 2014)

Laudio Ikastolako gorputz heziketako irakaslearen perfila

Aurreko paragrafoetan irakasleen ezaugarri orokorrak ikusi ditugu baina dakigun moduan irakasle bakoitza mundu bat da eta bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu. Irakasle horren prestakuntza eta esperientzia baldintzatuko du hein handi batean nolako irakaslea den eta gauzak zergatik egiten dituen. Laudio Ikastolako gorputz heziketako irakaslea 19 ikasturte darama ikastolan. Klaustroan 23 irakasleek osatzen dute egun eta erdia bera baino urte gehiago darama eta beste erdia urte gutxiago beraz, esan dezakegu ez dela ez zaharrenetarikoa ezta gazteenetarikoa. Nahiz eta zaharrenetarikoa ez izan 19 urte irakasle moduan, beraz, nahikoa esperientzia duela esan dezakegu. Denbora horretan ikasle asko eta oso desberdinak izateko aukera izan du eta egoera horietatik ikasteko baita ere. Laudio Ikastolan emakume edo gizonen arteko proportzioaren arabera, DBH tik gora emakumezkoak eta gizezkoak proportzio beran daude. Hortaz, berdintasuna bermatu nahi dela ikus daiteke. Halere, lehen hezkuntzan, emakumezkoen proportzioa da nagusi, gizon bakarra egonik. Aipatu beharra dago gorputz hezkuntzako irakaslea 5 urtez egon zela Laudio Ikastolako zuzendari moduan, horrek ikastetxearen funtzionamendua ondo ezagutzeko baliagarria izan zaio. Bukatzeko bakarrik esatea oso kirol zalea dela eta surfa ahal duen egun guztietan praktikatzen duela.




LAUDIO IKASTOLAKO GORPUTZ HEZKUNTZA

JARDUEREN KANPO LOGIKAREN AZTERKETA


ESKOLA: ESPAZIO ARRAZIONALA

Laudio Ikastola hesi batez inguratuta dago. Hesiaren barruan dagoena ikastola kontsideratzen da eta kanpoko ez, beraz zentratu egingo gara ikastolako eremura. Ikastola 2 espaziotan banatzen da. Alde batetik, ikastolako eraikina non



ikasgelak dauden eta bertan irakasgai akademikoak ematen diren. Bertan inteligentzia dagoela suposatzen da eta bestetik, aisialdirako espazioa. Aisialdirako espazio honen barruan 2 espazio bereizten dira: batetik polikiroldegia eta bestetik patioa non ondo pasatzeko lekua bezala ikusten da. Polikiroldegira heltzeko ikastolako eraikinetik atera behar da eta horrek suposatzen duen pentsaera aldaketarekin. Horrek eraman gaitzake pentsatzera; patioa ondo pasatzeko lekua bada zergatik ez polikiroldegia? Pentsaera aldaketa horren barruan hizkuntzaren erabilera aurkitzen da. Ikastolako eraikinaren barruan ikasleak euskaraz hitz egiteko ohitura dute baina eraikinetik atera bezain pronto txipa aldatzen dute eta erdaraz hitz egiten hasten dira.

Egia da gorputz heziketaren helburua ikasleek ondo pasatzea dela baina horren gainetik ikasleek ikastea dago eta ikasleei kostatu egiten zaie bereiztea ez dela patioa bezala. Egia da ikasleek ikasgeletatik aterata eta behin eraikinetik ateratzen direla txipa aldatu egiten dutela. Gorputz heziketara joan behar direnean ez dute beste irakasgaien modura tratatzen. Orokorrean pozik etortzen dira eta beraien aurretiko joera ona izaten da. Horrek gorputz hezkuntzako irakaslearentzat izugarritzko abantaila suposatzen du, ikasleen atxikipena arloarekiko orokorrean altua delako.



medietatik berritua
 Laudio (03400) Araba
 14.00.20
 1/100
 1

LAUDIO IKASTOLA
KOKAPEN PLANO OROKORRA
 neurritatik eta Inuitik: eremua peltor zementitago

Figura 1: Laudio Ikastolako espazio banaketa goitik begiratuta.

EGUTEGIA: BETEBEHARREN KOORDINAZIOA

Eskola ordutegia 3 semestretan banatzen da nagusiki. Lehenengo semestrea irailetik abendurarte gabonetako oporrekin bukatzen da. Bigarren semestrea urtarriletik apirilarte aste santuko oporrekin bukatuz. Hirugarren eta azkeneko semestrea apiriletik ekainerarte doa eta udako oporrekin bukatzen da.

Eskola egutegia begiratzan badugu konturatzen gara egutegi laboralarekin bat datorrela; lan egunak edo eskola egunak (astelehenetik ostiralera) eta jai egunak (larunbata eta igandea) bat datoza. Hau arrazoi sinple bategatik gertatzen da razionalizazioa. Egutegiaren arteko koordinazioa bilatzen saiatzen gara. Gurasoak lanean dauden bitartean euren seme-alabak klasean daude, era horretan ateratzen direnean gurasoak ere libre daude eskolara bere bila joateko. Laburbilduz, gizartea ordutegiaren arrazionalizaziora jotzen duela esan dezakegu.



Figura 2: Laudio Ikastolako 2013-2014 ikasturteko eskola egutegia.

Ordutegiaren eta irakasgaien antolaketa

Laudio Ikastolako ordutegiaren antolaketa ikusi aurretik interesgarria iruditzen zait jakitea Euskal Autonomi Erkidegoaren dekretu kurrikularrean derrigorrezko bigarren hezkuntzako ordutegia zein den. Bertan gutxieneko orduak zehazten dira eta Audio Ikastolako ordutegiarekin alderatzeko balio zaigu.

Gorputz hezkuntzan DBH 1, 2 eta 3 mailen baturan gutxienez 4 ordu eskaini behar zaie eta 4.mailan gutxieneko ordu bakarra dago. Taularen eskumako aldean erreferentziako ordutegia azaltzen da eta bertan gorputz hezkuntzari ordu gehiago ematen zaizkio. Ikastetxeak eskubide osoa dauka, betiere gutxieneko orduak errespetatuz, erabakitzeko ordu batzuk zein arlotara bideratu. Taulan agertzen da ikastetxearen erabakita izenpean eta bertan ikusten da DBH 1, 2 eta 3. mailetan zehar 17 ordu ditu ikastetxeari interesatzen zaiona egiteko eta DBH 4. mailan 5 ordu.

Asteko orduak, mailaz maila	Gutxieneko orduak		Erreferentziako ordutegia			
	1.+2.+3.	4.	1.	2.	3.	4.
Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia	7	3	3	3	3	3
Gorputz Hezkuntza	4	1	2	2	1	2
Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza	1	---	---	1	---	---
Etika eta Gizabide Hezkuntza	---	1	---	---	---	1
Gaztelania eta Literatura *	9	3	4	4	3	3
Euskara eta Literatura *	9	3	4	4	3	3
Atzerriko Hizkuntza *	9	3	4	3	3	3
Matematika	9	3	4	4	3	4
Naturaren Zientziak	7	---	3	3	3	---
Biologia eta Geologia	---	3 x 2 or.	---	---	---	3 x 3 or.
Fisika eta Kimika	---		---	---	---	
Teknologiak	4		2	1	2	
Plastikaren eta Ikusizkoen Hezkuntza	3		---	1	2	
Musika	3		1	---	2	
Atzerriko Bigarren Hizkuntza	---		---	---	---	
Infomatika	---		---	---	---	
Latina	---		---	---	---	
Erljioa	5	1	2	1	2	1
Tutoretza:	3	1	1	1	1	1
Aukerakoa edo indartzekoa:	17	5	---	2	2	---
Ikastetxeak erabakita:			---	---	---	---
GUZTIRA:	90	30	30	30	30	30

Taula 3: Euskal Autonomi Erkidegoaren dekretu kurrikularreko derrigorrezko bigarren hezkuntzako irakasgaiak eta ordu kopuruaren antolaketa.

Behin ikusita dekretu kurrikularrean jartzen duena goazen ikustera Laudio Ikastolako ikasleen ordutegia nolako den eta horretarako hoberena adibide bat jartzea da eta adibide hori analizatzea. Hurrengo taulan DBH 4Bkoen aste bateko ordutegia azaltzen da. Bertan ikusten dugu ordutegia antolamendua badela 3 ordu, atsedena, 2 ordu, bazkalordua eta ordu bat. Goizeko 9:00etan hasten dira eta arratsaldeko 4:30etan bukatzen dute egunero. Goizean ordu gehiago daude arratsaldean baino. Honen arrazoia goizean burua argia izaten dugulako eta arratsalderako, ordea, nekatuta egoten gara eta kontzentratzeko gehiago kostatzen zaigu. Atsedena 30 minutukoa da eta bazkalordua ordu bat eta 25 minutukoa. Bazkalordua denbora nahikoa ematen du etxean bazkaldu nahi duen pertsonarentzat denbora izateko.

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	AZTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
9:00	Gorputz hezkuntza	Matematika	Euskara	Matematika	Euskara
9:55	Frantsesa/ Teknologia	Euskara	Tutoretza	Frantsesa/ Teknologia	Latin/ Fisika eta kimika
10:50	Ingelesa	Etika	Euskara	Ingelesa	Matematika
11:45	ATSEDENALDIA				
12:15	Gaztelania	Frantsesa/ Teknologia	Gaztelania	Euskara	Biologia/ Informatika
13:10	Biologia/ Informatika	Latin/ Fisika eta kimika	Gizarte ingeleses	Gaztelania	Gorputz hezkuntza
14:05	BAZKALORDUA				
15:30	Gizarte ingeleses	Gaztelania	Biologia/ Informatika	Latin/ Fisika eta kimika	Gizarte ingeleses

Taula 4: DBH 4B mailako ikasleen aste bateko ordutegia.

Ordutegia ikusita irakasgaiak 2 arlo desberdinetan banatu ditzakegu. Alde batetik, arlo kontzeptualak eta bestetik prozedurazko arloak.

Arlo kontzeptualak oinarritu egiten dira diziplinaren helburuak eta oinarriak ulertzen eta teoriaren ezagutzan. Laburbilduz, “esaten eta adierazten jakitea”. Eduki teorikoen artean aurki ditzakegu: kontzeptualizazioa, ikuspegi teorikoak, fundamentu epistemologikoak ... (Travi, B. 2006). Prozedurazko arloak, aldiz, “egiten eta eraldatzen jakitean” oinarritzen dira. Svarzman, J. (1998) planteatzen duen moduan, guztiok gauzak egiten ikasi dugu; egiten eta beste batzuk nola egiten dituzten ikusten. Gauza bat nola egiten den irakasteko ez da nahikoa esatea nola egiten den. Ezinbestekoa da norberak egitearen esperientzia hori bizitzea bere esku propioekin eta berak dakien moduan aurretik dituen ezagutzekin. Beraz esan dezakegu gauzak egiten ikasten direla. Hasieran logikoa den moduan akatsak egingo ditugu eta hauek zuzentzen joango gara prozesua hainbat aldiz errepikatzen dugula, hau da, geroz eta hobeto egingo dugu prozedurarik egokiena egiten ikasi arte.

KONTZEPTUALAK				PROZEDURAZKOAK	
ZIENTZIAK	Ordu kopurua astean	HIZKUNTZAK	Ordu kopurua astean	GORPUTZA ETA ARTEA	Ordu kopurua astean
Matematika	3	Euskara	4	Gorputz hezkuntza	2
Biologia	3	Gaztelania	4	Teknologia tailerra	3
Fisika eta kimika	3	Ingelesa	2		
Gizarte ingeleses	3	Frantsesa	3		
Informatika	3	Latin	3		

Taula 5: Arlo kontzeptualen eta prozedurazkoen sailkapena.




Figura 3: Arlo kontzeptualak eta prozedurazkoak portzentajetan adierazita.

Grafikoan ikusten da irakasgaiari ematen zaien garrantzia. Bertan ikusten dugu astean prozedurazko arloei %13,88 (5 ordu) eskaintzen zaiela eta kontzeptualei aldiz %86,11 (31 ordu astean).

Gaur egungo gizartean badirudi zientziak eta hizkuntzak direla garrantzia duten bakarrak, ez ahal dago hezkuntzan irakasgai guztientzako lekua?

Gauzak horrela jarraituz gero arlo minoritarioak musika, plastika eta zergatik ez gorputz hezkuntza baita derrigorrezko hezkuntza kurrikulumentik kanpo gelditzeko arriskua dute. Prozedurazko arloak galduko balira, gorputz hezkuntza gure kasuan, umeei adimen motorra ez lukete landuko eta euren garapen integralerako ezinbesteko arloa da motrizitatea.

Orain arte aipatutako irakasgaien arteko garrantzia ez da soilik arlo kopurura mugatzen, beste egoera batzuetan ikus dezakegu garrantzi hori. Egoerarik garbiena ikasleak barnetegira joan behar direnean, edo adituren bat drogen aurkako hitzaldi bat eman behar duenean, edo museo bat ikusteko irteeraren bat dagoenean ... egoera guzti hauetan ikastolak prozedurazko arloak galtzen saiatzen da. Zergatik ezin da matematikako saio bat galdu eta gorputz heziketako bat ordea bai?

SOZIABILITATEA: ELKARLANA NAGUSI

Nahiz eta gizartea eta hezkuntza sistema ebaluazio indibiduala bultzatu, ikasleak azterketen bidez ebaluatzen direlako, Audio Ikastolak indibidualizazio horri aurka egiten dio eta kooperazioa sustatzen saiatzen da, gutxienez bere harremanetan azaleratuz. Laburbilduz, hezkuntza sistemaren barnean eta gizarte konpetitibo honen barnean, Audio Ikastolak taldean lan egiteari garrantzi handia ematen dio eta baita harremanak sendotzea ere.

Ikasleen arteko harremana

Ikasleen artean mailaren arabera jokabide desberdinak ikusten dira. DBH 1, 2 eta 3 mailetan ikasleak nerabezaroan sartuta daude eta hormonak pil-pilean dituzte. Horrek ikasleen artean tentsioa egotea dakar eta talde lanak burutzean edo jarduera kooperatiboetan gatazkak agertzen dira. DBH 4 eta Batxilergo 1 mailetan ikasleak burua zentratuta dute eta ez dira hainbeste zirikatzen bata besteari aurreko kurtsoetan ez bezala. Esan dezakegu heldutasun puntu bat daukatela eta kideak errespetatzeko joera dutela.

Ikasle eta irakasleen arteko harremana

Audio Ikastolan ikasle eta irakasleen arteko harremana nahiko estua da. Egia da nerabeek autoritatearen aurka joateko joera izaten dutela baina orokorrean harremana hurbila izaten da. Honen adibide garbia jolas orduak dira. Irakasle gelara ikasle asko hurbiltzen dira zalantzak argitzeko. Gainera, irakasleak beti daude prest laguntzeko eta horrek ikasleei gertutasuna adierazten die eta ez zaie zaila egiten irakasleekin hitz egitea. Harreman hurbil honek suposatzen du irakasleek bere ikasleak ondo ezagutzea eta ikasle bakoitza ikastolatik kanpo daraman bizimodua ere ezagutzen dutela.

Gorputz hezkuntzaren irakaslearen kasuan, ikasle eta irakaslearen arteko harremana beste irakasleekin baino askoz hurbilagoa da. Gorputz hezkuntzako irakaslea beti egoten da prest laguntzeko eta horregatik ikasleek arazoren bat dutenean edo kirolari buruzko zerbaitekomentatu nahi dutenean berari jotzen dute arazorik gabe. Ikasleak gorputz hezkuntzako irakaslearengana jolas orduetan edo pasilloetan jotzen dute eta askotan irakasle gelatik polikiroldegirako bidean edo kontrako bidean, beti dago norbait berari zerbaitekomentatzeko prest. Egia da batzuetan bidean segundo batzuk galtzen dituela baina bera

badaki ikasle batzuk harremanak egiteko zailtasunak izaten dituztela edo etxean kasu gutxi egiten diotenak eta kasu horietan norbaitek arreta jartzea gustuko dutela. Horrek guztiak ikasle eta irakaslearen arteko harremana sendotzen du.

Irakasleen arteko harremana: klaustroa eta informazio partekatzea

Laudio ikastolan esan beharra dago irakasleen artean giro oso ona dutela. Irakasle gelan giro bikaina dute eta egunero hitz egiten dute. Irakasleen saioaren batean gertatutakoa beste irakasleekin konpartitu egiten du eta ikasleei buruz hitz egiten dute sarri. Kurtso bakoitzeko klase bakoitza irakasle tutore bat dauka eta hau ikasleen irakaskuntza prozesuari buruzko jarraipena egiten du. Irakasle bakoitza bere arloari buruz ikasle bakoitzaren txosten bat egin behar du 3 hilero eta informazio horrekin tutorea beste irakasleen ikuspuntuak dakizki. Adibidez egon daiteke irakasle bat matematikan oso txarra baina biologian adi dagoena eta arreta handiarekin gustatzen zaiolako. Beraz, garrantzitsua da jakitea irakasgai bakoitzean duen portaera.

Gorputz hezkuntzako irakaslearen balorazioek garrantzi handia izaten dute arlo motorrean nola murgiltzen diren azaltzen duelako. Beste irakasgaietatik berezia dena delako. Laburbilduz, esan dezakegu irakasleen arteko elkarlana oso garrantzitsua dela.

Irakasle eta gurasoen arteko harremana: tutoretza bilerak

Lehen aipatu bezala, ikasleen tutorea irakasleek betetako txostenekin ikasleen gurasoekin bilerak izaten dituzte euren seme edo alaba nola doan azaltzeko. Orokorrean ikaslea ondo badoa bilera bakarra egiten da kurtso erdian gurasoei esateko berdin jarraitzeko. Ikasleren bat oso txarto badoa bilera gehiago egiten dira gurasoei esateko gehiago inplikatu behar dela.



Kurtsoan zehar ikasleen asistentzia kontrolatu egiten da eta ikasle bat ez bada klasera azaltzen gurasoei deitu egiten zaie jakinean egoteko. Irakasleei ez zaie gustatzen poliziarena egiten ibiltzea baina egin behar duten zerbait da. Gurasoek jakinean egon behar dute beraien seme edo alabek egiten dutenaz. Hori dela eta, etxerako lana ez badituzte

egiten agendan gurasoen sinadura eskatzen dute eta horrekin ziurtatzen dute gurasoek jakinean daudela.

Psikologo eta irakasleen arteko harremana

Orokorrean harremanak orain arte azaldutakora mugatzen badira ere, kasu batzuetan psikologo batzuekin harremanak ere mantentzen dira behar bereziko umeekin batez ere. Behar bereziko umeek laguntza gehiago jasotzen dute eta arlo batzuetan beste mota bateko jarduerak egiten dituzte psikologo edo laguntzailearekin. Beste kasu batzuetan ikasleek klasean laguntzaile bat besterik ez dute behar. Laguntzailearen funtzioa izenak esaten duen moduan laguntzean datza. Ikasle hauek beste norbaiten laguntza dutenean gauzak egiteko joera izaten dute eta hori positiboa da.

Kasu errealak

Nik praktikak egiten egon nintzen denboran, elkarlan hau oso modu argian ikusten nuen eta 2 kasu azalduko dizkizuet argi gelditzeko. Lehen kasua gorputz heziketako irakaslearekin zerikusi zuzena zuen. Irakaslea DBH 4-ko klase baten tutorea zen. Klasean bazegoen bat harremanak egiteko zailtasun handia zuena eta ikasle honen amak, alaba psikologora eramaten zuen. Amak bere alabari pertsonak guztiak txarrak zirela esaten zion eta ez zezala inori hurbildu min egingo ziotelako. Neska honek bere amak esaten ziona egiten zuen, baina heldu zen momentu bat non ama konturatu zen bere alabari ez ziola inolako mesederik egiten eta ezin zuela horrela jarraitu. Horregatik psikologora eramaten zuen jarrera aldaketa bat emateko. Psikologoak gorputz hezkuntzako irakaslea astero deitzen zuen neska honen berri jakiteko. Gorputz hezkuntzan jarduera kooperatiboak proposatzerako orduan neska honen erreakzioak ezagutu nahi zituen eta irakasle bezala bere ikuspuntua ere eskatzen zion. Bien artean, bai psikologo eta irakaslea, helburu berdina lortu nahi zuten; neska hau begiak irekitzea eta beste pertsona batzuekin erlazionatzen jakitea. Ideia sinplea dirudien arren errealitatea bestelakoa da. nik praktikak hasi nituenetik bukatu nituen arte aurrera pausuak ikusten ziren baina oraindik lan handia zegoen egiteko eta horretan lanean ari ziren.

Bigarren kasua behar bereziko ume batekin zerikusia dauka. DBH 2-ko mutil bat Down sindromea zuena eta irakasgai batzuetan beste zentro batetara joaten zen Down

sindromeko beste pertsona batzuekin batera beste eratako jarduera batzuk egiteko. Kasu honetan ere, Down sindromeko zentroko zuzendaria mutil honen portaerari buruzko informazioaren berri ematen zion ikastolako psikologo propioari, honek berarekin lan egiten zuelako beste arlo batzuetan, eta honek irakasleei jakinarazten zien portaerak desegokiak agertzen zirenean zergatik etor zitezkeen.

Laburbilduz

Ikus dezakegu ikastolak elkar lanerako joera handia duela eta ikasleak inguratzen dituen pertsona desberdinak kontuan hartzen dituela. Ikastolaren ustez ikasle bat bere osotasunean ulertzeko oso garrantzitsua da jakitea ikasle horren testuingurua. Ikastola saiatzeko da ikasle guztien garapen integrala bilatzen eta irakaskuntza prozesua ahalik eta erraztasun gehien eskaintzen.

MATERIALA: TEKNOLOGIAREN INBASIOA

Laudio Ikastola pixkanaka teknologia berriak ezartzen ari da. Duela urte batzuk ikasgeletan arbela eta klarionak besterik ez zeuden eta horrekin baliatu behar ziren irakasleak. Gaur egun ikasgela guztietan arbela elektronikoko bat jarri dute arbelen alboan.

Gorputz hezkuntzan materialaren inguruan antzeko gauza gertatzen da. Irakaslea urtero material berria erosten du, zaharra apurtu delako edo material berria erabiltzeko. Gorputz hezkuntza beste irakasgaien arian jarraituz materialaren menpe dago eta gorputz hezkuntzako saioetan hori ikusten da, materiala erabiltzeko joera dagoela. Materiala irakaskuntza prozesuaren medio bat bezala ulertu behar dugu eta material asko erabiltzea irakaskuntza prozesua aberastu egiten duela (Gonzalez, M., Gonzalez, C. 1996). Irakaslea material anitz dauka saskibaloiko edo futboleko baloiak, erraketak, teniseko pilotak ... Beraz esan daiteke material nahikoa eta soberan duela saioak burutzeko eta material horietan oinarritzen dela saioak ematerako orduan. Gorputz heziketako irakaslea ulertzen du materiala apurtu egiten dela edo apurtu egiten dela baina betiere erabilera egoki bat ematen bada. Ikasleren batek materialaren bat apurtzen badu erabilera desegoki batengatik ordaindu behar du edo berri bat erosi eta ikastolara eraman. Gorputz heziketako saioetan materiala bertakoa erabiltzen da beti patinak salbu.

Krisiarekin ikastetxe askok ez dute diru askorik materiala berritzeko. Horrek agian gorputz heziketako klaseak material gabe egitera eramango gaitu edo emateko modua aldatuko da. Materialik gabe irakastea gorputz hezkuntza txarragoa kontsidera daiteke? Nire ustez, materialik gabe modu berdinean irakatsi daiteke eta horrek ez du baldintzatuko irakaskuntza txarrago bat, irakaskuntza desberdin bat baizik. Halere materialaren beharra daukagunean ez dugu ahaztu behar material berria erosi beharrean beti dugula guk sortzeko aukera eta birziklatuz materiala egin dezakegula, behar den gauza bakarra imajinazio apur bat besterik ez.

Materiala eta presupuestoa

Laudio ikastolan materiala elkar erabiltzen Liburuak adibidez ikastolak ikasleei uzten dizkie eta kurtso bukaeran bueltatu behar dituzte hurrengo urtekoek erabili ditzaten. Materialaren ardura izatea eskatzen du.



da.

Gaur egun krisi garaian gaudenez materialaren presupuestoa gutxitu egin da arlo guztietarako baina dagoenean nora bideratzen da?

Zentro pribatuek ez dute presupuesto finkorik eta hori dela eta zentro bakoitzak beharren arabera banatzen du dirua. (Gonzalez, M., Gonzalez, C. 1996). Audio Ikastolak teknologia berrien aldera jotzen du eta gaur egun ordenagailuen garrantziaz jabetuta, batxilergo lehenengo eta bigarren mailetan ikasle bakoitza ordenagailu bat izango du. Ordenagailuak armairu batean gordeta egongo dira eta bakoitzak berea izango du. Irakasleek uste dute bakoitzak bere ordenagailua izatea garrantzitsua dela, ikasleek norberaren gauzak zaintzeko joera dutelako baina materiala guztiena denean ez dira hainbeste arduratzen. Horrek suposatzen du gutxienez 10.000 euro gastatu dituztela eta gorputz heziketako presupuestoa 400 eurokoa izan da.

Argi ikusten da desoreka bat dagoela eta era zeharkako batean ikusten da zeri ematen zaion garrantzi gehien. Audio Ikastolak argi eta garbi informatikari ematen dio garrantzi gehien.

MOTRIZITATEAREN GARRANTZIA SOIN HEZKUNTZAN

100 saioetatik %18 (810 minutu) jokabide motorrik gabeko jarduerak izan dira. Irakaslea batxilergoko ikasleei osasunari buruzko poster bat egiteko hainbat aste utzi zizkien eta horrek jokabide motorrik gabeko portzentajea asko igo du.

Ikasleek jarduera fisikoa egiteko duten arlo bakarra izanik, denbora osoa jarduera fisikoak egiten eman beharko lukete. Emaitzek diote % 18an ez dagoela jokabide motorrik jarduera manualak edo bestelakoak egiten dituztelako.




Figura 4: Adimen motorrari ematen zaion garrantzia.

Datu honetatik ateratzen dugun ondorio nagusi eta garbiena zera da: Laudio Ikastolako ikasleak adimen motorraren %18 galtzen dutela. Beraz nahiz eta hezkuntza kurrikulumean adimen motorrari garrantzi handia eman ikusten dugu errealitatean adimen motorrari dagokion ordu kopuruaren zati bat galdu egiten dela. Laburbilduz, Laudio Ikastolak motrizitatea landu egiten du hein handi batean baina etorkizunerako motrizitateari ordu guztiak dedikatzea egokiago izango litzateke.

LAUDIO IKASTOLAKO GORPUTZ HEZKUNTZA

JARDUEREN BARNE LOGIKAREN AZTERKETA

Sarrera

Irakaslearen barne pentsamendua proposatutako joko eta jolasetan adierazten da eta hau programatutako egoera motor horien barne logika (Parlebas, 2001) aztertuz ikusi dezakegu. Jarduera mota batekoak edo bestelakoak praktikatzek ikasleari esperientzia desberdinak biziaraziko dizkio, hauen aukeraketak, jarduleari balore eta ikasketa desberdinak eskainiz. Audio Ikastolako 2013/14 ikasturtean burutako ikerketa honetan irakaslearen barne pentsamendua agerian jarri nahi dut, gorputz hezkuntzako eskoletan eginiko joko-jolas bakoitzaren espazio eta denborarekiko harremana, partaideen arteko harremana eta objektuekiko harremana.

Elementuen analisisia

GORPUTZ HEZKUNTZA ESPAZIALA: ZIURGABETASUN EZA

Euskal kultura tradizionalen betidanik etxea izan da familiaren eta gizartearen espazio nagusia. Etxeak babestu egiten zituen kanpoko gauza arrotzetatik: eguraldi txarra, lapurrak ... eta era berean jaten ematen ziren lekua zen. Etxea basoaren aurka jartzen da, non arriskuz beteriko lekua bezala ikusten da. Etxea eta basoaren arteko alde hau euskaldunen munduaren pertzepzioaren kontzeptua definitzen zuen. Orokorrean, esan dezakegu euskaldunak denbora gehiena etxean edo etxe inguruan ematen zutela. Oso gutxitan joaten ziren basora, bakarrik garbitu behar zenean eta egurra jasotzeko. Espazioaren inguruan 2 ondorio garbi atera ditzakegu. Lehenengo ondorioa bada euskaldunak geroz eta etxetik urrutiago joan, geroz eta denbora gutxiago ematen zutela. Bigarren ondorio bezala, geroz eta etxetik urrunago joan espazioa geroz eta arriskutsuagoa bihurtzen zen. Beste era batera esanda, geroz eta urrunago etxearen babesaren eragina txikiagoa zen. Umeen jolasak aztertzerako orduan ikusten zen printzipio hauek jarraitzen zituztela. Jolas gehienak

etxe inguruan egiteko joera zutela eta geroz eta urrunago joan jolas kopurua gutxitzen zihoan.

Norbanakoa bere bizitzaren lehenengo urteetan egiten dituen jolas eta kirolak garrantzi handia daukate. Praktika hauen helburua ondo pasatzea izanik, aurrera eramaten dituzten egoera ludiko motorrek, bere funtzionamendurako arau zehatz batzuk jarraitzen dituzte eta testuinguru kulturalaren isla ikus daiteke. (Gil, J. 2011).

Umeen praktika motorrek sozializazio prozesuaren zati garrantzitsua osatzen dute eta burutzen diren testuingurua baldintzatuko du praktika hauek zeharo. Parlebasen arabera (2001, p. 227), etnomotrizitatearen kontzeptua era honetan definitzen du: “campo y naturaleza de las prácticas motrices, consideradas desde su relación con la cultura y el medio social en el que se han desarrollado”.

Etxebeste (2001) eta Urdangarín (2009) ikerketetan ondorio berdinak planteatu dituzte. Biek, euren tesi doktoraletan, Euskal jolas eta dantza tradizionalak akzio sozializatzailer moduan tratatu zituzten. Lehenengoa, Euskal Herriaren testuinguruaren barnean eta bigarrena, aldiz, Estatu Batuetan. Lan hauetan erakusten dute nola testuinguru sozialak eragiten duen subjektuaren egoera motorren barne logikaren interpretazioan, hots, arauetan balore sozial batzuen onarpena emanez.

Gorputz hezkuntzan gertatzen denari erreparatuz, ikasleak jarduera fisikoak egitean 2 espazio motekin erlazionatzen da: aldatzen ez diren eremu egonkorrekin, hau da, ziurgabetasun gabeko espazioekin, eskolako polikiroldegia kasu eta ziurgabetasuna sortzen duten ingurune aldakorrekin: ingurune naturalekin. Banaketa hau Parlebasek (2001) erabili zuen espazioaren barne logikaren azterketarako. Lehenengoak egonkorrak, ziurtasuna, segurtasuna eta konfiantzako sentrazioak sorrarazten dituen bitartean, bigarrenak, espazio aldakor batetara moldatzeko beharra eskatuko dio ikasleari.

Etxebesteren arabera (2004), espazio ziurgabea espazio arriskutsua eta kontrolik gabekoa da. Inguruaren informazioaren irakurketa gaitasuna eskatzen du. Hau da espazio ziurretan

gertatzen den kontrakoa. Kontrola hain handia da non ez dagoen arriskurik eta ez den informazio iturririk. Beraz irakaslea proposatzen dituen jarduera motorrak ziurgabetasun espaziala duten edo ez dutenaren arabera balore transmisio eta garapen kognitibo desberdin bat suposatuko du.

Bi espazio moten artean Laudio Ikastolako irakasleak bere joko eta jolasak proposatzerako orduan eremu ziurra erabili du %99-ko portzentajearekin (3645 minutu). Beraz esan dezakegu, ikasleek eginiko jarduera guztiak, gizakiak moldatutako espazioetan praktikatu direla.




Figura 5: Espazioaren datuak portzentajearekin.

Laburbilduz, Laudio Ikastolako irakasleek, murgilduak gauden gizarteak bezala funtzionatzen duela adierazten digu; kasu honetan, eskolako frontoiak, patioak eta gimnasioak erabiliz, etxeak sorrarazten dion babesaren sentazio berbera eskainiko zaio ikasleari.

GORPUTZ HEZKUNTZA TENPORALA: LEHIAKETA ETA LEHIAKETA EZA

Euskal kultura tradizionalen denboraren antolakuntza eliza katolikoaren egutegiaren arabera zehaztuta dago. Egutegi eklesiastikoan ospakizun kristauak 2 motatakoak izan daitezke: ospakizun finkoak edo ospakizun mugikorak. Ospakizun finkoek eguzkiko egutegia jarraitzen dute, hau da, ospakizun eguna beti berdina izango da, aste eguna aldatuz. Ospakizun finkoaren adibide gisa San Ferminak ditugu. Beti uztailearen zazpian hasten dira eta aldatzen den gauza bakarra asteko eguna urtearen arabera. Ospakizun mugikorak aldiz, ilargiaren egutegia jarraitzen dute, hau da, aste egun finko batean baina urteko eguna aldatzen da. Ospakizun mugikorren adibide dugu Aberri Eguna. Beti igande batean izango da eguna aldatzen joanez urtearen arabera. Eliza katolikoaren egutegia euskaldunen lurreko bizitzaren eta bizitza espiritualaren arteko oreka bilatzen du, 2 ospakizun motei garrantzi bera emanez. Beste era batera esanda, denbora jarrai edo finko eta denbora zikliko edo aldakorraren artean oreka bat egotea bilatzen du. Kristau ona izateko biak beharrezkoak baitira.

Egoera didaktiko motorrak ez dira era berdinean bukatzen. Garaile gabeko egoera motorretan, bistakoa da, irakaslea proposatzen dituen joko edo egoera didaktikoetan ez dagoela garailerik. Joko-egoera hauen bukaera eginbeharraren kanpo logikaren elementu batengatik ezarria izango da: eskolaren amaiera, irakaslearen agindua ... egoeraren arauak ez baitute zehazten noiz bukatzen den. Hitz gutxitan esanda, ez dago azkeneko garailerik helburua ez baita lehiatzea partekatzea baizik. (Lopez, A. 2010)

Garailedun egoera motorretan, ordea, joko-egoera hauen bukaera joko arauetan azaltzen da. Egoera hauetan irabazteko lehiatzen da. Heziketa fisikoko irakasleak erabaki dezake zein praktika mota proposatu. (Lopez, A. 2010)

Laudio ikastolako irakasleak ikasleen praktiketarako hau da egin duen aukeraketa: jarduera guztien % 75 (2760 minutu) emaitza gordetzen ez den irabazle gabekoak izan dira eta % 25 (930 minutu) memorian gorde eta garaile dutenak. Joera honek argi adierazten du irakaslearen aukera jokabide motor desberdinen bizipena dela kasu honetan garrantzitsuena eta ez hauengandik lortutako emaitza. Klaseko partaide guztien arteko partekatzea da helburua eta hauen bitartez, eman, hartu, lagundu eta banatzearen baloreak biziartzea; etxean, familian, egiten dugun bezala, konparaketarik eta irabazlerik gabe.




Figura 6: Denboraren datuak portzentajeen.

GORPUTZ HEZKUNTZA SOZIABILITATEA: ELKARREKINTZA INDIBIDUALIZAZIOAREN GAINETIK

Euskaldunentzat etxea ez da soilik espazio fisiko nagusia, giza harremanen zentroa ere bada. Gizartearen antolakuntzaren etxeko taldeari “etxekoak” esaten zaio. Honen isla ikusten dugu antzinako baserrien izenak familiaren abizena jartzen ziotela identifikazio gisa, Goikoetxea eta Garaikoetxea esate baterako. Euskal hizkuntza, euskara, kulturaren pentsaeraren isla da eta etxeko taldeko pertsonen arteko harremanak ulertzeko baliagarria zaigu. Euskarak harremanetarako 3 maila bereizten ditu: berorika (excelencia), zuka (de usted) eta ika (de tú). Erregistro desberdin hauek errespetuaren arabera erabiltzen ziren. Etxeko jaun-andre zaharrei berorikan hitz egiten zaie, etxeko jaun-andre gazteei zukan eta gazte eta umeei ikan. Harreman sozialak hierarkia printzipioa jarraitzen dute adinaren arabera. Hierarkia hau arlo laboralean ere ikus daiteke. Etxeko jaun-andre zaharrek etxea antolatu eta lanak kudeatzeaz arduratzen ziren. Etxeko jaun-andre gazteek lanak burutzen dituzte eta gazteagoak lan txikiak egiten zituzten.

Umeen zeregin nagusia jolasa da eta ikusita yo-yo eta ezkutatzea jolas oso desberdinak direla jolasen arteko bereizketa bat egitea ezinbestekoa da. Alde batetik jolas psikomotorrak ditugu eta bestetik jolas soziomotorrak. Egoera psikomotorren bidez umeei bere bakarkako gaitasunen garapena lortuko du, norberaren balore indibiduala bultzatuz. Egoera soziomotorretan berriz, jarduleak elkarrekintzan arituko dira; kide edo arerioekin komunikatu beharrean gertatuko dira, mezuak adierazteko edo ezkutatzeko, emozioak hartu eta emateko. Egoera hauetan, ikasleak baloia edo pilota noiz pasa behar duen ikasten du, noiz harrapatu, nori lagundu, norekin ezkutatu erabakitzen du eta erlazionatzeko ehunka modu desberdin bizitzen ditu. kooperazio edo oposiziozko erlazioan, rola aldatuz, laguntzen edo besarkatzen, emozioak adierazi eta bultzatzen dituzten harremanetan. Norbera eta kidea errespetuz tratatzen elkarbizitzen duen bitartean, ikasten du bizitzen.

Laudio Ikastolako irakasleak proposatutako joko eta jolasetatik % 55 (2060 minutu) soziomotorrak izan dira; ikasleen arteko harreman da garrantzitsuena. Jarduera psikomotorrak % 45eko (1630 minutu) presentzia izan dute. Jarduera fisikoak egiten ari

diren ikasleen arteko elkarrekintzaren bi erlazio moduen arteko ezberdintasuna ez da oso handia.




Figura 7: Partaideen arteko harremanaren datuak portzentajeen.

Gaur egun gizartean eragin handiena duena indibidualismoa da baina hezkuntza sisteman geroz eta gehiago ikusten da taldean lan egiten ikasteari ematen zaion garrantzia. Arrazoi hau dela eta portzentajeak nahiko orekatuak dira.

GORPUTZ HEZKUNTZA MATERIALA: OBJEKTU UGARI, TEKNOLOGI URRIA

Euskal gizarte tradizionalan 3 ardatz nagusi aurkitzen ditugu: ekonomia aurreztean oinarritzen zen, eskuzko lana egiten jakitea ezinbestekoa zen eta objektuek erabilpen anitz hartzen zituzten. Lehenengo ardatza da nagusia eta horren ondorioz esku lana eta berrerabilpena dira euskal kulturaren garrantzi handia zutenak.

Euskal kulturaren abeltzaintza eta nekazaritzaz ulertzeaz gain, oinarrizko nozio batzuk izan behar dituzte eskuekin gauza desberdinak egiten jakiteko. Erabiltzen ziren objektuek erabilera anitz hartzen zituzten beharren arabera. Oso ohikoa zen objektu batek bere oinarrizko funtziorako gaitasuna galtzen zuenen beste gauza batetarako berrerabiltzea. Adibidez egurrezko hesi bat apurtzen zenean egur hori sua egiteko erabiltzen zuten.

Gaur egun teknologiaren garaian bizi gara eta hau egunerokotasuneko edozein arlotan ikusi genezake. Eskola, gizartearen pare joateko beharrez, teknologia berrietan eguneratua egoteko esfortzua egiten ari da. Ordenagailu, arbela digitala edo bideo moderno horietako bat ez duen ikastetxerik ez dago gaur egun.

Gorputz hezkuntzan berdintsu gertatzen dela pentsa genezake, hau da, heziketa fisikoko eskoletan erabiltzen den materiala gizartearen garapenarekin bat doala. Egia da hezkuntza zentroetako biltegietan material ugari, ezberdin eta erakargarria egoten dela (Lopez, A. 2010). Gorputz heziketarako material espezifikoa erabiltzen da eta horregatik materialaren menpekotasuna egoten da askotan. Urtero materiala apurtu egiten da eta erosi egin behar da. Material berria eta ugari izatea pentsarazi ahal digu soin hezkuntza gizartearen teknologiaren aurrerakuntzekin bat datorrela.

Halere, errealitatea da gorputz heziketan erabiltzen diren tresna eta material desberdinak, nahiz eta ugari izan ez dira oso modernoak teknologia aldetik.

Laudio ikastolan egindako joko eta jolasetatik % 70 (2555 minutu) materialarekin praktikatuak izan dira eta % 30 (1135 minutu) objekturik gabe. Esan dezakegu irakaslea kultura materialaren alde jotzen duela.




Figura 8: Objektuekiko harremanaren datuak portzentajeen.

Gaur egungo hezkuntza sistema kultura materialaren menpe dago. Gizarte kontsumista batean bizi gara eta eragin zuzena dauka gizartearen esparru guztietan eta hezkuntza ez da salbuespena. Gizarte eta eskolaren arteko balore berdintasun horiek, heziketa fisikoko irakaslearen barne pentsamendua agerian jartzen du.

ONDORIOAK

Laudio Ikastolako Hezkuntza proiektuari erreparatuz eta irakaslearen ikuspegia erreparatuz, gorputz hezkuntzako irakaslearen ikuspegia lau elementuei buruz hurrengo hau da:

Espazioari erreparatuz, irakaslea bere saioak espazio ziurrean planteatzen ditu. Hezkuntza Proiektuan natur ingurunea ezagutzea eskatzen denean, gorputz hezkuntzako irakaslearen arabera barnetegietan hori sustatzen da eta arrazoi horregatik ez ditu natur jarduera gehiago planteatzen. Barnetegietan ikasleek egiten dituzten jarduera gehienak natur inguruetan burutzen baitituzte.

Denborari erreparatuz, memoriadun jarduerak oso gutxitan planteatzen ditu eta nahiz eta froga edo test fisikoak egin, horiek notaren portzentaje oso txikia suposatzen dute. Batzuetan neurtzeko beharra ikusten du ikasleei gustatzen zaielako bere burua ebaluatzea.

Harremani erreparatuz, irakaslea ikastolako hezkuntza proiektuarekin bat egiten du eta lankidetzat landuko du beste gauza guztien gainetik. Taldean lan egitea askoz aberatsagoa baita.

Objektuei erreparatuz, irakaslea materiala erabiltzearen alde jartzen da elementu motibagarri gisa ikusten baitu. Materiala ikasleak erakartzen ditu eta askoz gehiago inplikatzeko dira jardueretan.

KONKLUSIOAK

Laudio ikastetxeko gorputz heziketako irakaslea beste ikerketa batzuetan azaltzen den moduan, berak proposatutako joko-jolasak etxekotutako eremu ziurretan praktikatzen dira, konparaketa eta sailkapenik gabekoak dira, taldekideen arteko elkarbizitzaren baloreak bultzatzen dituzte eta objektuen menpekotasuna dute. Ikerketa honen emaitza berdinetara heldu ziren bai Larrinaga, A. (2008) eta baita Lopez, A. (2010) ere. Hau guztiz logikoa da kontuan harturik gizarte berdinean egin direla ikerketak, hau da, testuingurua berdina izan da. 2 ikerketak Euskal kulturaren barnean burutu izan dira, Amaiarena Getxon eta Lopezena Vitoria-Gazteizen. Errealitate honek, barne logikako elementuen konbinaketa izanik, ikaslea eskolan murgildua dagoen giroa erakusten digu: aukera berdinetan erlazionatuz eta espazio egonkorrean teknologiaren aldetik eguneratua egonez.

Eskolak etxeko giroa errepikatzen du, ekintzak garatzen diren eremuetan ziurtasuna eskainiz, norberarekiko akatsak eta ahultasunak ezkutatuz eta bertute eta bizipenak potentziatuz; taldean egin beharreko jardueratan eta taldekideen komunikazioan laguntzen du eta teknologiaren aldetik gizartearekin batera garatzen doa materialaren erabilpena nagusituz. Balore hauen ezaugarriek, ikastetxea familia handi eta profesionala egiten dute.

BIBLIOGRAFIA

- Ministerio de Educación Chile (2008). *Marco para la buena enseñanza*. Santiago. Recuperado de: http://www.aep.mineduc.cl/images/pdf/2011/MBE2008_logo2011.pdf
- Ibarra, L. (2006). *El Rol del Profesor*. La Habana: Universidad de la Habana. Psicología Online.
- Salmerón, M. (2011). Estilos de enseñanza y funciones del profesorado. *EFDeportes.com, Revista Digital*. Buenos Aires, N° 156. <http://www.efdeportes.com/efd156/estilos-de-ensenanza-y-funciones-del-profesorado.htm>
- Ministerio de Educación Chile (2011). *Ley N°20.501. Calidad y Equidad de la educación*. Recuperado de: <http://www.leychile.cl/N?i=1022346&f=2011-02-26&p=>
- Contreras, O. (2000). *Formación inicial y permanente del profesor de Educación Física* 1ª ed. Volumen I. España: Universidad de Castilla-La Mancha.
- Aguirre de Vergara, M. (2011). *El docente como facilitador y mediador*. (IV Congreso de Calidad Educativa). Universidad San Francisco de Quito, Instituto de Enseñanza y Aprendizaje, Quito, Ecuador.
- Gutiérrez, M., Pilsa, C., Torres, E. (2007). Perfil de la educación física y sus profesores desde el punto de vista de los alumnos. *Revista internacional de ciencias del deporte*, 3(8), 40.
- González, M., González, C. (1996). El material de educación física en el marco de la reforma educativa. *Educación Física y Deportes*. (46) 36-41.
- Gutiérrez, J.M. (2009). El adolescente normal. VI curso para padres de adolescentes.
- Ros, R., Morandi, T., Gozzetti, E., Lewintal, C., Cornella, J., Suris, J.C. La adolescencia: consideraciones biológicas, psicológicas y sociales. *Manual de salud reproductiva en la adolescencia*. 27-83. (OMS)
- Joseba Etxebeste, J., Urdangarin, C. Reflexiones sobre la educación física de hoy a la luz de las características de la cultura tradicional vasca.
- Larrinaga, A. (2008). Análisis praxeológico del pensamiento de profesor de educación física: el caso de una escuela primaria de Getxo.

- López, A. (2010). Análisis praxiológico de la educación física de primaria (6-12 años) en el País Vasco: un estudio de casos. *Acción motriz*. (5) 20-32.
- Goffman, E. (1959). La presentación de la persona en la vida cotidiana. *Buenos Aires*.
- Travi, B. (2006). El proceso de enseñanza-aprendizaje de los Contenidos Procedimentales en la asignatura Trabajo Social II de la Carrera Licenciatura en Trabajo Social de la Universidad Nacional de Luján. *Acciones e Investigaciones Sociales*.
- Svarzman, J. (1998). La enseñanza de los contenidos procedimentales. El taller de Ciencias sociales. Ed. Novedades educativas, Bs. As.
- Parlebas, P. (2001). Juegos, deporte y sociedad. Léxico de Praxiología Motriz.
- Gil, J. (2011). Análisis del espacio de educación física en el colegio Mediterrani de Meliana (Valencia). *Acción motriz*. (6) 5-9.
- Parlebas, P. (2001). Juegos, deportes y sociedades. Léxico de Praxiología motriz. (F. González del Campo, trad.) Barcelona, España: Paidotribo.
- Etxebeste, J. (2001). Les jeux sportifs, éléments de la socialisation traditionnelle des enfants du Pays Basque. Thèse de doctorat, Université Paris V René Descartes. París. France.
- Urdangarín, C. (2009). Bailando jauzi bajo barras y estrellas. Una etnografía del Zazpiak Bat Group of Dancers de Reno, Nevada. Tesis doctoral. UPV-EHU. Departamento de educación física y deportiva. Vitoria – Gasteiz.
- Franco, F. (2012). La naturaleza del espacio en la educación física franciscana. *Acción motriz*. (9) 37-47.
- Etxebeste, J. (2004, mayo). La presencia del investigador en etnografía. *Una experiencia en un equipo de Fútbol Americano de un High School en Reno-Nevada*. Comunicación presentada en el I Congreso Vasco de Investigación en Ciencias del Deporte, Vitoria.
- Etxebeste, J., Del Barrio, S., Urdangarín, C., Usabiaga, O., Oiarbide, A. (2014). Ganar, perder o no competir: la construcción temporal de las emociones en los juegos deportivos. *Educatio Siglo XXI*. (32) 33-48.
- Berger, K. S. (2007). Psicología del desarrollo: infancia y adolescencia. Ed. Médica Panamericana.

- Celaá, I. (2010). Haur hezkuntzarako, lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako dekretu kurrikularrak Euskal Autonomia Erkidegoan. *Eusko Jaurlaritza*.